

1

Kalkulatu buruz honako datu multzo hauen batez besteko balioak.

Datu multzoa	Batura	Datu kopurua	Batezbestekoa
5, 2, 5	12	3	4
4, 3, 2			
6, 0, 4, 6			
2, 8, 8, 2			
6, 4, 7, 8, 5			

2

Batezbestekoak jakinda, kalkulatu falta diren datuak.

Datu multzoa	Batura	Datu kopurua	Batezbestekoa
5, 2, ...	15	3	5
4, 3, ...		3	4
6, 0, 4, ...			3
2, 8, 8, ...			6
6, 4, 7, 8, ...			5

3

Esan, kalkulurik egin gabe, kasu bakoitzean ematen diren aukeren artean, zein den datu multzoaren batezbestekoa eta zergatik.

Datu multzoa	Batezbestekoa	Eraitza
3, 4, 6, 7	5 edo 9	
2, 4, 6, 8, 10	1 edo 6	
10, 12, 14, 16	13 edo 9	
20, 25, 30	20 edo 25	
10, 11, 12, 13, 14, 15, 16	13 edo 18	

4

Honako taula honetan, saskibaloiko bi jokalarik txapelketaren lehen 6 partidetan zenbat puntu sartu dituzten ageri da.

Jokalaria	1. Partida	2. Partida	3. Partida	4. Partida	5. Partida	6. Partida
A	12	Lesio natua		16	12	14
B	14	10	4	12	8	8

a Batez besteko balloak lagunduko al dizu bi jokolari horien datuak aztertzen? Zergatik?

b Zeinek sartu du puntu gehien?

c Zeinek jokatu du partida gehien?

d Zeinek du batezbesteko hobia partida bakoitzeko?

e Zure iritziz, zeinek du tantoak egiteko ahalmen handiena? Zergatik?

5

Batezbestekoari buruz ikasitakoa kontuan hartuta, esan ezazu adierazpen hauek egia ala gezurra diren, eta aipatu adibideak.

a

Batezbestekoa beti da handiagoa datu multzoan dagoen zenbaki txikiena baino, eta txikiagoa handiena baino.

b

Batezbestekoa kalkulatzeko, nahikoa da datu multzoaren zenbakirik handiena eta txikiena batu eta gero zati bi egitea.

c

Batezbesteko bera duten kopuru bereko datu multzoak berdinak dira.